

[www.apdema.org](http://www.apdema.org)

2021eko  
jardueren  
memoria



APDEMA

ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL DE ALAVA  
ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ARABAKO ELKARTEA

2021eko  
jardueren  
memoria

# aurkibidea

## elkartea

Misioa	3
Ikuspegia	3
Balioak	4
Batzar Nagusia	4
Zuzendaritza Batzordea	5
Bazkide mugimendua	5
Ekonomia	6
2021. urtea zenbakietan	7
2021eko jarduera nagusiak	8

## zerbitzu asoziatiboak

Familiei laguntzeko zerbitzua	9
Prestakuntza eta dibulgazioa	10
APDEMAren batzordeak	10
Komunikazioa	12

## etxebizitza zerbitzuak

Baliabideak	14
Talde-etxeak	14
Egonaldi laburrak	14
Atsedeen programa	15
AVI programa	15

## aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

Aisia zentroak eta programak	18
Oporraldi programa	18
Bidaia programa	18
Kirol programa	19
Boluntarioak	19
Irakurketa errazeko klubak	19
Autokudeatzaileen programa	19

## arreta goiztiarreko zerbitzua

Arreta zuzena	21
Familientzako laguntza	23
Koordinazioa	23
Gizarte prestakuntza eta parte-hartzea	23

# aurkezpena

Familia maite agurgarriak:

Irailaren 2021ean ospatutako Batzar Nagusian gauzatutako nire izendapenaren ostean, honako hau da suertatzen zaidan lehenengo aukera buru naizen Zuzendaritza Batzorde honengan jarritako konfiantza eskertzeko, helburu nagusia zuen behar eta itxaropenei modu egokian erantzuten saiatzea delarik.

Hurrengo orrialdeetan, zehaztasunez, APDEMA elkartearen 2021. urterako Jardueren memoria aurkezten dizuet. Jarduera hauek elkartearekin parte hartze aktiboa duten erakunde, entitate eta enpresei esker posible izan dira eta bihotzez eskertzen diegu euren laguntza.

2021. urtean zehar, pandemia dela eta, ohiko jarduerak antolatzeko zailtasunak ez dira desagertu, baina, erabiltzaileen ahaleginari eta jarduerak garatzeko ardura dutenen inplikazioari esker, kasu askotan euren betebeharrak profesionalek haratago, azkenean ahalik eta modurik hobereanean burutzen joan dira.

2022. urte honetan, 60 urte bete dira gure Elkartea sortu zenetik (1962-2022) eta hori dela eta, modu berezian ospatu nahi dugu. Helburu horrekin, hainbat ekitaldi prestatzen ari gara eta horietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Elkarrekin, eta aukera honekin, Elkarteko pertsona eta familien bizitza hobetzeko hartu dugun konpromisoa ezagutzera eman dezakegu.

Igarotako epe luze honen erreposao eginez, aipamen berezia egin nahiko nieke APDEMA Elkartearen sorreran, garapenean eta sendotzean buru-belarri aritu eta prestutasunez parte hartu duten gizon eta emakume guztiak. Gurasoak, senideak, zuzendaritza batzordeetako kideak, langileak, boluntarioak, horiei guztiak eta zuei gure eskerrik beroena eta onarpena.

Eta, 60 urte hauetan adimen urritasuna duten gure senideen bizi-kalitatea modu esanguratsuan hobetu dela presente badugu ere, ez gara konformatzen, aldarrikapenak izaten jarraitzen dugu; izan ere, oraindik badira bete ez diren batzuk, hala nola, itxaron-zerrendak ezabatzea, ohiko lan-merkatuan integratzea, bizimodu independentearen aldeko laguntza, arreta goiztiarreko zerbitzuen sustatzea, edo kalitatezko tratamendu espezifikoa adinakoentzat, besteak beste.

Zuzendaritza Batzordetik adierazitako helburuak lortzeko lanean jarraituko dugula ziurtatzen dizuegu eta horretarako, zuen babesa eta laguntza izatea espero dugu.

Eskerrik asko aipatutako guztiagatik, zuen esanetara geratzen naiz eta adeitasunez agurtzen zaituztet.

*Carlos Errasti Murguiondo. APDEMAko presidentea*

# zuzendaritza batzordea

## Presidentea:

Carlos Errasti Murguiondo jauna

## Presidenteordea:

María Begoña Ortiz de Zárate Ortiz de Pinedo andrea

## Idazkaria:

Aitor Olabe Beobide jauna


## Diruzaina:

José Antonio Amurrio Urraca jauna

## Kideak:

Maria Blanca Sáenz de Urturi Sáenz de Urturi andrea  
 Maria Consuelo Saez Palma andrea  
 Maria Carmen Loreto Carranza Hernaez andrea  
 Alain Callejo Matía jauna  
 Maria Angeles Gamarra Mayor Martinez andrea  
 Mercedes García López andrea  
 María Victoria García Cordero andrea  
 María Angeles Deza Carrillo andrea

# organigrama



2021eko  
 jardueren  
 memoria

# elkartea



Gure sorreratik (1962), Araban adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen elkartea da geurea, APDEMA, eta haien autodeterminazioa eta gizarteratzea lortzea du helburu. Parte-hartzeari eta bizikidetzari irekita dauden eta arretarekin, prestakuntzarekin eta gizarte-sentsibilizazioarekin konprometituta dauden pertsonak osatzen dute APDEMA. 1.200 familia baino gehiago ditu bazkide numerario eta laguntzaileen artean. Irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta 1971n onura publikokotzat jo zuten.

Betidanik erreferente izan gara adimen urritasuna duten pertsonen eskubideen defentsaren eta gizarteratzearen arloan. Gure jarduera eta aintzatespen garrantzitsuenen artean, azpimarratzekoa da Adimen Urritasuna duten Pertsonen Elkarteen Aldeko Espainiako Federazioaren (FEAPS) (egungo Gizarteratze Osoa) sorreran bazkide fundatzaile gisa parte hartu izana, 1991n Eusko Jaurlaritzak Euskadin gizarte-zerbitzuak sustatzeko erakunde gisa emandako SUSTATU saria eta 1994ko Arabako domina, Arabako Foru Aldundiarena, egindako giza eta gizarte-lanagatik.

## Misioa

Adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea.

## Ikuspegia

Guk nahi dugun etorkizuna ingurune osasungarri, irisgarri eta bateragarriak eraikitzean datza, autodeterminaziotik eta adimen urritasuna duten pertsonak barne hartuta.

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarte bat gara.

APDEMA 1962. urtean sortu zuten Arabako gurasoek.

Gure misioa da adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea.

Honako hauek dira gure elkartearen balio nagusiak:

justizia, kalitatea, goxotasuna, unibertsaltasuna eta parte-hartzea.

APDEMAK 2 bazkide mota ditu: familiak eta kolaboratzaileak.

2021ean, 700tik gora familia eta ia 500 kolaboratzaile ditu elkarteak.

Horretarako:

Elkartea buru da urritasunen bat duten Arabako pertsonen beharretarako konponbideetan, ondorengo hauekin:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Misto batekin: gestio pribatu kontzertatukoa eta plangintza publikoaren mendekoa. Elkartek zerbitzuak erabili eta ematen ditu aldi berean.
- Gizarte ordezkari handi eta zabal batekin.
- Jarduera-irizpide berritzaileak erabilia, baliabideen dagokionez.
- Familien lidergo soziala eta elkarten parte-hartze demokratikoa sustatuta.
- Bizi kalitatearekin konprometitutako elkarte kualifikatu gisa, gaitasun teknikoak eta kalitatea legitimazio-iturrien osagarri direlako, ezintasuna duten pertsonen eta horien familien beharrei konponbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako.

## Balioak

Elkartek bere egin dituen munduaren ikuspegi partekatuarekin, ezintasun intelektualak duten pertsonen eta horien familienekin, eta horiek euren inguruarekin duten erlazioarekin bat datozen balioak.

Ondorengo hauek, alegia:

Elkartasuna	Kualifikazioa eta berrikuntza
Justizia	Eraginkortasuna
Kalitatea	Independentzia
Gardentasuna	Kooperazioa
Inguruarekiko elkar harremana	Kide izateko sentimendua
Bezeroarekiko orientazioa	Parte-hartzea

## Batzar nagusia

Apdemako Ohiko Batzar Nagusia modu presentzian oinarritutako zen berriz ere irailaren 15ean Gasteizko Vital Fundazioa Kulturunean, osasun-segurtasun arau guztiak mantenduz. Hala, 31 elkartekide, Zuzendaritza Batzordeko kideak, Zuzendari Orokorra, Giza Baliabideen zuzendaria eta APDEMAko beste teknikari batzuk bertaratu ziren. Bi boto-ordezkaritza erregistratu ziren, biak Presidentearen aldekoak.

Bertan, gure intereseko gai nagusiak jorratu ziren, hala nola 2020ko ekitaldiko jardueren eta urteko kontuen memoria, 2021eko proiektuak eta aurrekontu ekonomikoa edo Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza partziala, gure estatutuaren adierazten den bezala.

Lehendakariak hasi zuen bilera, eta azaldu zuen batzarra irailean egiten zela urteko lehen seihilekoan ez genituelako lankidetzaren hitzarmenaren likidazioak, eta horregatik atzeratu behar izan zela kontu-ikuskaritza.

Gero, aurreko akta irakurri eta onartu ondoren, idazkariak 2020ko jarduera-memoria aurkeztu zuen, eta zuzendari-gerenteari eman zion hitza, memoriaren ikus-entzunezko aurkezpena egin zezan. Horri buruz galdetuta, bertaratuak aho batez onartzea erabaki zuten.

Horrez gain, Zuzendari Orokorra proposatuta, Batzarrak, erabiltzaile, senitarteko eta profesionalen lana pandemiaren zehar txalo artean antzeman zuten, bereziki 2020ko martxotik irailera epea.

Jarraian, idazkariak urtean zehar izandako bazkide-mugimendua azaldu zuen. Eskematikoki adierazita, 2020ko ekitaldia ixtean, bazkide numerarioak 720 ziren; bazkide laguntzaileak, berriz, 467.

Batzarrean jorratutako hurrengo gaia 2020ko ekitaldiko urteko kontuak izan ziren. Diruzainak, Carlos Errasti jaunak, xehetasunez azaldu zituen gastuen eta sarreraren partida nagusiak, bai eta 2020ko ekonomia-ekitaldiari dagozkion balantzea, emaitzen kontua eta saldoak ere. 2020ko kontuek 4.785,21 euroko emaitza negatiboa erregistratu zuten, defizit hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2021eko ekitaldian konpentsatuko duelaren salbuespenarekin. Azalpenak eman ondoren, Batzarrak aho batez erabaki zuten 2020ko kontuak onartzea.

Zuzendaritza Batzordea berritzeari dagokionez, idazkariak Zuzendaritza Batzordea berritzeko izendatutako hautagaiak aurkeztu zituen: Consuelo Saez Palma andrea, Aitor Olabe Beobide jauna (berriz hautatua), Blanca Saenz de Urturi Saenz de Urturi (berriz hautatua) eta Mercedes Garcia Lopez (berriz hautatua). Jarraian, Lehendakariak hitza hartu zuen eta karguen proposamena aurkeztu zuen, Carlos Errasti Murguiondo jauna, Lehendakaria izanik eta Joseba Amurrio Urraca jauna, diruzaina. Aho batez onartu zen Batzarrean Zuzendaritza Batzordeak egindako proposamena; beraz, hautagaiak hautatu eta izendatu ziren. Bere izendapenaren ostean, Lehendakari berriak eskerrak emateko hitza hartu zuen, kargu honetarako beregan jarritako konfiantza eskertuz eta pandemia garaian Apdemako profesional guztien lana antzemanaz.

Ondoren, 2021eko proiektuei heldu zieten. Presidenteak horien inguruko azalpen xehea eman zien bertara joandako bazkideei. Hala, gure erabiltzaile eta bazkideen



beharren ikerketan antzemandakoaren ondoren ezarriko direnak nabarmendu zituen, hala nola, familientzako eta erabiltzaileentzako psikologia zerbitzua eta familientzako prestakuntza. Bi programa berri ere nabarmendu zituen, hala nola, Hegoak, helduen bizitzarako trantsizioan laguntzeko, eta adimen urritasuna duten pertsonentzako OPEak prestatzen hastea. Batzarrak aho batez onartu zituen 2021.urterako aurkeztutako proiektuak.

Amaitzeko, 2021eko aurrekontu ekonomikoa jorratu zen, eta diruzainari egokitu zitzaion gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena egitea. Adierazi zuenez, aurtengo aurrekontua %5,8 inguru handitu zen, funtsean, Aisialdirako Hitzarmenaren ondorioz eta pandemiaren eraginez 2020an egin ezin izan ziren Elkarte Zerbitzuen programak ezartzeagatik.

Kuotari dagokionez, 2021. urterako kuota 85 euroetara igotzea proposatu zen. Batzarrak aho batez onartu zuen kuoten igoera.

## Zuzendaritza batzordea

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren erabaki organo gorenak, Zuzendaritza Batzordearen esku uzten du gure elkarteko eguneroko gai nagusien kudeaketa. 2021eko ekitaldian, ohiko 11 bilera eta beste bi osagarri egin zituzten kideek.

## Bazkide mugimendua

2021eko hasieran, 720 bazkide numerario eta 467 kolaboratzaile zeuden erregistratuta. Urtean zehar 22 alta eta 17 baja izan dira bazkide numerarioen artean, bai eta 0 alta eta 16 baja ere kolaboratzaileei dagokienez. Beraz, 2021eko abenduaren 31n, 1.176 familia zituen bazkide APDEMAk. Horietatik, 725 bazkide numerarioak dira eta 451k beren laguntza eskuzabal eta balio-baliotsua ematen jarraitzen dute laguntzaile gisa.

<b>720</b> Bazkideak	<b>467</b> Kolaboratzaileak	<b>725</b> Bazkideak	<b>451</b> Kolaboratzaileak
2020		2021	

## Ekonomia

APDEMAk, lau lankidetzeta-hitzarmen mantendu ditu 2021ean Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin. Etxebizitzak, Aisialdia eta Parte-hartze Soziala eta Arreta Goiztiarrerako lan-hitzarmenak luzapenean mantendu ziren akordiorik lortu ez zelako. Zerbitzuen eta Elkarte Jardueren hitzarmena sinatu zen.

Txosten hau ixteko unean, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen likidazioaren zain, behin-behineko emaitza ekonomikoek defizita erakusten dute Etxebizitza, Aisialdia eta Elkarte hitzarmenetan. Hala ere Foru Erakundeak Etxebizitza eta Aisialdiari dagozkionetan estaltzea espero dugu. Arreta Goiztiarreko hitzarmenak emaitza positiboa erakusten du, Foru Erakundeak ekitaldiko likidazioan erregulatuko duen zenbatekoa delarik.

Kirol Programarako, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren, Gasteizko Udalaren eta Laudioko Udalaren laguntza ekonomikoa izan dugu.

2021ean, Covid-19 pandemiaren ondorioz zeuden osasun neurriak mugatuta, hainbat programa garatu ahal izan genituen Vital Fundazioa bezalako entitateen finantzaketari esker, hala nola enplegurako trebetasunen "Impulsa-T" (Bultza) programa eta adimen urritasuna duten emakumeentzako ahalduntze-programa "Círculo de Mujeres", (Emakumeen Zirkulua). La Caixa erakundeak "Enlazados" (Lotuta) programa aurrera ateratzea ahalbidetu zuen. ONCE erakundearekin elkarlanean "Envejecimiento" (Zahartzea) programa bezalako beste jarduerak batzuk martxan jarri ditugu, azken hau adimen urritasuna duten adineko pertsoneri zuzenduta. Gasteizko Udala adimen urritasuna duten emakumeak ahalduntzeko programarekin elkarlanean aritu zen, "Mujeres con voz propia" (Ahots propioa duten emakumeak). Gazteen gaitasunetan trebatzeko "Hegoak" programak eta "Enplegu publikoko deialdiarako Prestakuntza ikastaroa" programak enpresa gasteiztarren ekarpenak jaso zituzten euren gizarte-erantzukizuneko programaren barruan.

Vital Fundaziotik jasotako laguntza ere azpimarratu behar dugu, lokalak utzi baitizkigu, bai eta Gasteizko, Laudioko, Barrundiako eta Amurrioko udalen lankidetzeta ere, azken horrek udalerriri horretako etxearekin zein irakurketa errazeko klubean bezalako beste jardueretan laguntzeagatik. Gure RSE

programarekin bat egin duten enpresa eta erakundeei eta ekonomikoki (baita anonimotasunetik ere) lagundu diguten guztiei ere, eskerrik asko.

Kontabilitatearen gardentasunari eta zuzentasunari dagokienez, esan behar da ekitaldiaren kanpo auditoria orokor bat enkargatu zela, eta BETAANek egin zuela; txosten hori Ohiko Batzarrean onartu zen. Dagokion bezala, Foru Erakundeak berak zehatz-mehatz ikuskatu du gure kontabilitatea.


Eusko Jaurlaritzari ere aurkeztu zaizkio kontuak, "erabilera publikoko" eta "gizarte intereseko" elkartea bait da gurea.

### 2021EKO Diru-sarreraren eta gastuen laburpena. Behin-behineko datuak.

Gastuak		Diru-sarrerak	
<b>Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak</b>		<b>Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak</b>	
Arreta goiztiarra	<b>1.008.706,33</b>	Arreta goiztiarra	<b>1.008.706,33</b>
Etxebizitzak	<b>4.989.488,17</b>	Etxebizitzak	<b>4.989.488,17</b>
Aisia	<b>325.828,39</b>	Aisia	<b>325.828,39</b>
<b>Zerbitzu komunen eta asoziatiboaren guztizko gastuak</b>		<b>Zerbitzu komunen eta asoziatiboaren guztizko diru-sarrerak</b>	
<b>441.558,77</b>		<b>441.241,57</b>	
<b>Gastuak guztira</b>		<b>Diru-sarrerak guztira</b>	
<b>6.765.581,66</b>		<b>6.765.264,46</b>	

## 2021. urtea zenbakitan


1.725



### erabiltzaileak

- Asoziatiboak **725**
- Etxebizitzak **170**
- Aisia **253**
- Arreta goiztiarra **576**

242



### profesionalak

- Asoziatiboak **13**
- Etxebizitzak **192**
- Aisia **13**
- Arreta goiztiarra **24**

## Usuarios

### Asoziatiboak

Bazkide diren familiak **725**

Familiekin elkarrizketak **310**

### Etxebizitza zerbitzuorokorrak 170

Etxeak **93**

Egonaldi laburrak **15**

Avi **42**

Atsedean etxea **20**

### Aisia 253

Gasteiz **183**

Amurrio **19**

Laudio **24**

Arabar Errioxa **27**

### Autokudeatzaileak 68

Vitoria **58**

Amurrio **10**

### Kirola 88

Gasteiz **74**

Laudio **14**

### Arreta goiztiarra 576

## 2021eko jarduera nagusiak

Gure Elkarteko familientzako eta erabiltzaileentzako Psikologia Zerbitzua sortzea.

Adien urritasuna duten pertsonentzako lan eskaintza publikoak prestatzeko ikastaroak.

Desgaitasun intelektuala duten emakumeak ahalduntzeko "Mujeres con Voz Propia" (Ahots Propioa duten Emakumeak) programa.

Eskola etapa bukatu duten gazteentzako "Hegoak" trantsizio programa.

Etxebizitzak: etxebizitzetan eta programetan Covid-19aren kontrolerako protokoloak eta neurriak egokitzea eta ezartzea.

Aisialdia laguntzarekin modu autonomoan gozatzeko "Gera gaitzezen" programaren finkatzea.

Bazkideak diren familientzako formakuntza.

Deustuko Unibertsitatearen eta FEVASen "Familian Oinarritutako Praktiken Eredua" proiektuan parte hartzea.

Euskadiren ordezkaritza "Plena Inclusion"-ek sortutako estatuko PDI plataforman.

Udako Oporren Programen berraktibatzea.

Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren berrantolaketa esku-hartzeen zuzeneko eta zeharkako arreta adosteko.



# zerbitzu asoziatiboak



Familiei laguntzea, informazioa ematea, entzutea eta haien ondoan egotea. Horrela laburbiltzen da APDEMAko Elkarteen Zerbitzuen helburu nagusia. Horixe da APDEMAren zerbitzu asoziatiboen helburu nagusia. Horregatik, bertako profesionalen lan handi bat gure erabiltzaileen familiei laguntzea da, ezinbestekoak baitira adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen bizitzan. Ez urritasuna duten pertsonak zaintzeko bakarrik, baita horien autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko erreferente pertsonal gisa ere.

## Familiei laguntzeko zerbitzua

Adimen urritasuna duen pertsonaren familiaren dimentsioa du ardatz zerbitzu honek, elkarriketa pertsonalaren bidez batez ere, eta eguneroko gai jakinetarako konponbideak aurkitzeko kudeaketak ere egiten ditu. Banakako arretak ondorengo hau suposatu du:

- Adimen urritasunarekin lotutako gaien inguruko informazioa, orientazioa eta kudeaketa.
- Elkartera informazio edo aholku eske jo duten pertsonari hasierako ongietorria ematea. 2021ean 22 bazkide berri egin ditugu.
- Prestazio ekonomikoak. Urtero bezala, prestazio ekonomikoen eta familia babesteko neurrien liburuxka bat egin da, gida modukoa, adimen urritasuna duten pertsonentzat.
- Baliabide instituzionalen eta horiek eskuratzeko moduen inguruko informazioa.



Familiak oso inportanteak dira adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Zaindu, lagundu eta autonomia eta bizi-kalitatea sustatzen dute. Gure elkarteak euren eguneko lanean laguntzen die familiei. Prestakuntza lanak egin eta ezagutzera ematen dute elkarteak.

APDEMAN, Batzorde izeneko lan-taldeak daude.

Hauek dira APDEMAren batzorde nagusiak:

Enplegu Batzordea, Okupazio Zentroen Batzordea, Erabiltzaileen Batzordea eta Adinekoen Batzordea.

# zerbitzu asoziatiboak

- Erabiltzaileen eta horien familien inguruko datuak jaso eta eguneratzea. Bazkideen egoera pertsonal eta familiarrean izandako aldaketak direla eta, sistema informatikoan datuak eguneratuta mantendu dira.
  - Egoera espezifikoetan esku hartzea, bizi-kalitatearen hobekuntzan, familia arteko gatazketan eta abar.
  - Trantsizio-uneetarako laguntza, arreta goiztiarreko zerbitzutik hezkuntza sistemara pasatzeko, hortik lan eta lanbide mundura, erretirora, edo etxebizitza espezifikoetara.
  - Harremana izan dugu erakundeen baliabideetan artatu gabeko pertsona batzuekin, eta harremanetan jarri gara eurekin, beren egoera pertsonalari buruz jakiteko.
- Guztira, 310 pertsona artatu dira 2021ean, 241 emakume eta 69 gizon.

## Prestakuntza eta dibulgazioa

### • Hezkuntza arloko dibulgazioa

2021ean, GASTEIZTXO programan, elkarrizketak egin dira Lakua BHI, Sansomendi BHI eta Koldo Mitxelena BHIko 4 ikasle talderekin. Guztira 45 pertsonak hartu dute parte, 31 neska eta 14 mutil hain zuzen ere. Udalaren GASTEIZTXO programaren bitartez, APDEMA eta horren funtzionamendua ezagutzera ematen dira, eta sensibilizazioa eta agerikotasuna sortzen dira gizartean.

### • Familia taldeak

2018. urtean martxan jarri zirenetik familia taldeek aktibo egoten jarraitzen dute. Bi talde daude, bata Gasteizen eta beste Aiarako Aranean. 2021eko urrian bi taldeen jarduerari berriro ekin zaio. 40 pertsonak "Cuidar Cuidándote" (Zaindu zure burua zaintzen) saioan parte hartu dute. 38 pertsonak, berriz, "Resolución de conflictos en el cuidado de personas dependientes" (Gatazkak konpontzea menpekotasuna duten pertsonen zaintzan) saioan.

## APDEMAren batzordeak

### • Enplegu Batzordea.

APDEMAren erabiltzaile eta Enplegu Zentro Bereziatiko (EZB) langile diren sei

pertsonak, APDEMAren erabiltzaileak diren pertsonen bost senidek, EZBko edo enplegu arrunteko langileek eta APDEMAko bi profesionalek osatzen dute Enplegu Batzordea. Enplegu zentro berezietan gertatzen denaz eta bertako langileen ingurukoaz egunean egotea da helburua. 2021ean lau bilera egin dira.

### • Okupazio Zentroetako Batzordea

Okupazio-zentroen errealitatearen berri izateko, APDEMAren erabiltzaileen zazpi senidek osatzen dute batzorde hau. 2021ean ez da bilerarik egin.

### • Erabiltzaileen Batzordea (Mundua eraikitzen dugu)

2016an sortu zen Batzordea, FEVAS Plena Inclusión Euskadiren "Mundua eraikitzen dugu" proiektuan sartuta dago, eta adimen urritasuna duten pertsonen elkarrekin protagonismo handiagoa ematea du helburu. 2021ean zazpi bilera egin dira, baita APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariekin ohikoa den bilera ere.

### • Adinekoen Batzordea

2019an APDEMAko helduen batzordea jarri zen martxan. 45 urtetik gorako APDEMAko pertsonak eta horien senitartekoei osatzen dute. Horren helburua da une honetan elkartekideen %60 baino gehiago biltzen dituen kolektiboaren beharrak jasotzea. Gaur egun bederatzita lagunek parte hartzen dute, sei emakumek eta hiru gizonak. Urtean zehar lau aldiz elkartu dira.

### • FEVAS Plena Inclusión Euskadiko batzordeak

2021ean, FEVAS Plena Inclusión Euskadiko familia-batzordea ez da elkartu, baina taldearekin zazpi bilera egin dira Famililan Oinarritutako Praktika Ereduen inguruan.

### • Hezkuntzaren jarraipena

2021ean, harremanetan egon gara hezkuntza ikastetxeekin eta Berritzeguneko gizarte langileekin eta Berritzegunearekin koordinatu gara 2022an saio informatibo bat antolatzeko.

### • Etorkizunerako prestakuntza

Etorkizuna APDEMAko gurasoak eta anaia-arrebak asko kezkatzen dituen kontua da. 2021ean, honako gai hauei buruzko aholkularitza eta informazioa

eman zaie familiei: testamentua, etorkizuneko tutore-lanak, egoitza-aukerak, etab. Irailaren 3an Kode Zibilean egokitzapen bat gauzatu zen legezko gaitasuna aldatzea, tutoretza, kuradoretza, eta laguntza neurri orokorrei eragiten diona. Irailean familia kide guztiei gutun bat bidali zitzaion aldaketen berri emateko.

#### • Erabateko Kalitatearen Ebaluazio Sistema

2021ean, planaren funtsezko gaiak lantzen jarraitu dugu. Behin autoebaluazio etapa gaudituta eta Hobekuntza Plana aurkeztuta, Konpromiso-etapa berrantolatu dugu eta aipatutako plana lantzen jarraitzen dugu, bertan jasotako hobekuntza guztiak betetzen saiatzeko.

Hiru dira familia zaintzeko zerbitzua zuzenean eragiten dutenak, hala nola, familien asebetetze ebaluazioa, taldearen ahalduntzea eta bistaritzea eta familia-taldeak sortzea.

#### • Bestelakoak

##### - Kontuak egiteko laguntza.

2021ean, elkarteak familia askori lagundu die kontuak egiten eta, ondoren, auzitegian aurkezten; izan ere, pertsona horietako asko adinekoak dira eta zailtasunak dituzte horrelakoak egiteko.

##### - Laguntza psikologikoa jasotzeko zerbitzua

Adimen urritasuna duten pertsonen eta familiei 2019an egindako beharrei buruzko ikerketan aldarrikapen nagusietako bat elkartearen laguntza psikologikoa jasotzeko zerbitzu bat izatea izan zen. Horrela, 2021eko urrian zerbitzu hau martxan jarri zen, honen helburua, adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien behar psikosozialei arreta ematea delarik. Horrez gain, laguntza psikologikoko zerbitzuak jaso duen beste eskaera bat "Familiaz Familiara" programa espezifikoak sortzea izan da. Horrela, besteak beste, egoerei aurre egitea, estrategiak eskuratzea, beste ikuspuntu batzuk ezagutzea, informazioa lortzea, laguntza emozionala, isolamendu haustea eta beste familia batzuk ezagutzea lortuko da.

##### - Elkartearen beste zerbitzu batzuk koordinatzea eta horietan esku hartzea

Aurreko urteetan bezala, harreman eta lankidetzeta estua izan dugu Arreta Goiztiarreko, Etxebizitzako eta Aisialdiko eta Gizarte Parte-Hartzeko zerbitzuekin.

##### - Proiektuen koordinazioa

Urtariletik uztaiera adimen urritasuna duten pertsonak ahalduntzeko **Enlazados** (Lotuta) proiektua gauzatu da La Caixa Gizarte Ekintzaren lankidetzari esker. 73 lagunek parte hartu dute, 36 gizon eta 37 emakume.

ONCE erakundearekin elkarlanean, irailtik abendura bitartean, aisialdirako eta komunitatearekin parte-hartzeko alternatiba bat eskaintzeko 45 urtetik gorako adimen urritasuna dutenentzat "Envejecimiento" (Zahartzea) programa garatu da eguneko jarduerarik gabe edo jubilatuta daudenei zuzenduta. 14 pertsonen parte hartu dute, 3 emakume eta 11 gizon.

Iraila eta urria bitartean eta Vital Fundazioaren dirulaguntzari esker, txerlatze soziolaboralerako gaitasunak eta baliabide pertsonalak sustatzen dituen **Impulsa-T** (Bultza) programa garatu da. Bertan 7 lagunek parte hartu dute, 4 emakume eta 3 gizon.

Ekainetik irailera, **Mujeres con voz propia** (Ahots propioa duten emakumeak) programa gauzatu da Gasteizko Udaleko Berdintasun Sailaren dirulaguntzarekin. 18 urtetik gorako eta Apdemako erabiltzaileak diren 15 emakumek parte hartu dute. Eta urritik abendura Vital Fundazioaren finantzaketari esker, **Círculo de Mujeres** (Emakumeen Zirkulua) programa garatu da. Taldea 23 eta 50 urte bitarteko 11 emakumek sortu dute.

Urritik abendura autonomia sustatzeko **Hegoak** programa gauzatu da. 5 pertsonen parte hartu dute, 4 gizon eta emakume 1.

Urritik abendura bitartean Estatuko Administrazio Orokorrak adimen urritasuna duten pertsonentzat **enplegu publikorako deialdia prestatzeko ikastaroa** martxan jarri da.

# zerbitzu asoziatiboak

## Komunikazioa

Zerbitzu horren helburua da Elkartea sentsibilizatzea eta sustatzea iritzi publikoan leku bat eduki dezan, eta APDEMA Araban adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien alde lan egiten duen elkarte gisa kokatzea.


Zerbitzu horrek egiten dituen jardueren barruan, Ecos informazio-buletina azpimarratu behar da. Horren bertsio digitalean, adimen urritasuna duten pertsonak, euren senideek, teknikariek, boluntarioek eta abarrek elkartearan egunerokoa islatzen dute. Lau hilean behin, inprimatutako bertsioa argitaratzen da, gure eguneroko gai garrantzitsuenekin.

Gizarte medioei dagokienez, 2021ean 35.263 bisita izan ditu APDEMAren web orriak. Bestalde, Facebooken orrialdea 1.563 jarraitzaile (atsegin dut) izatera iritsi zen, eta 1.698 lagunek jarraitzen dute. Bestalde, Twitterreko kontuak 858 jarraitzaile izan zituen.

Aurten ere, desgaitasunaren nazioarteko eguna dela eta, dibulgazio-kanpaina bat egin du APDEMAk, Vital Fundazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Aurtengo kanpainaren leloak, "Apdeman, nahi baduzu, posible duzu", adimen urritasuna duten pertsonen ahalduntzea sustatzea helburu duten programak ezagutzera eman nahi zituen. Bestetik, adimen urritasuna duten pertsonen zein Apdemako profesionalen lana baloratzeko nahi zen, ahalduntze eta autonomia pertsonal handiagoa lortzeko.



## Zerbitzu asoziatiboaren egitura



# etxebizitza zerbitzuak



APDEMAK Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin duen hitzarmenaren bitartez garatzen eta kudeatzen du etxebizitza zerbitzua. Hiru arlotan banatzen da horren jarduera: Taldeentzako Etxeak, Bizimodu Independentearen aldeko Programa eta Atsedeen Programa.

Zerbitzuaren helburu nagusia da adimen urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, euren eguneroko bizimoduan etxeari eta dagokion komunitate-inguruneari dagokienez. Horretarako, erabiltzailearen zoriona, etxean edo komunitate-ingurunean ahalik eta autonomia handiena garatu edota edukitzea, eta erabiltzailearen bizimodua normalizatzea bilatzen dugu, horren nahi pertsonalen eta komunitate-ingurunearen arabera.

Lanerako filosofia horren oinarria pertsonari begirako planifikazioa da, arreta bizi-kalitatean eta laguntzetan ezarrita. Hori dela-eta, banakakoa da gure lana, artatzen dugun pertsona bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatzen gara.

Zerbitzuaren jarduera probintzia osora zabaltzen da. Zehazki, taldeentzako hamaika etxe daude. Atsedeen programak, berriz, pisu bat du Gasteizen, baina probintzia osoko familiak artatzen ditu. AVI programak Gasteizen, Oionen eta Laudion artatzen ditu pertsonak.



Etxebizitza zerbitzuak etxea eskaintzen dio etxerik ez duenari, eta modu independentean bizi nahi duten pertsoneri laguntzen die. Komunitateko ekintzetan parte hartzen ere laguntzen du. APDEMAK taldeentzako 7 etxe kudeatzen ditu Gasteizen,

2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian.

Egonaldi laburrak ere eskaintzen ditu APDEMAK, kasu puntualetan.

Eta eskola-adinean dauden neska-mutilen familiek atsedeen programaz goza dezakete asteburuan.

# etxebizitza zerbitzuak

## Baliabideak

### Taldeen etxeak

Etxebizitza baliabideak dira, eta adimen urritasuna duten 10 pertsona artatzen dituzte gehienez. Etxebizitzak iraunkorrak dira, hau da, babes osoa eskaintzen dute urte osoan. Bertan, banakako laguntza programak eskaintzen dira, dagokion komunitate-ingurunearekin koordinatuta, betiere.

APDEMAK 11 talde etxe kudeatzen ditu: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian.

### Egonaldi laburrak

Talde etxeetako aldi baterako egonaldi laburrak dira, eta urteko hainbat sasoitan erabiltzen dituzte adimen urritasuna duten pertsonak. Senideen behar berezitarako edo pertsonak beraiek une jakin batean eduki ditzaketen premiazko egoera puntualetarako dira.

2021ean, 13 lagunek erabili dute baliabide hori.

Zerbitzua	Egonaldiak	Erabiltzaile kop.	egunak
Easo	1	1 (0 emakume, gizon 1, 27 urte)	365
Foronda	3	3 (0 emakume, 3 gizon, 42, 44 eta 45 urte)	25
Laudio	4	3 (emakume 1, 31 urte, 2 gizon, 49 eta 53 urte)	76
Mariturri	6	5 (emakume 1, 55 urte, 4 gizon, 18, 30, 37 eta 43 urte)	107
Zapardiel	1	1 (emakume 1, 47 urte, 0 gizon)	151
<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>13*</b>	<b>724</b>

(\*): Egonaldien kopurua ez dator bat etxebizitza bakoitzeko pertsona-kopuruarekin, pertsona batzuek hainbat egonaldi labur egiten dituztelako.





### Atsedeen programa

Familiari laguntzeko programa bat da. Eskola adinean dauden eta adimen urritasuna duten haurren senideei asteburuan eta oporretan atsedeen ematea da helburua.

Atsedeen etxea Gasteizen dago eta urteko asteburu guztietan funtzionatzen du programak, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldia eskaintzen zaie familiari oporretan (Aste Santuan, San Prudentzio jaietan edo udan). 2021ean, 10-21 urteko 20 neska-mutil (5 neska eta 15 mutil) artatu dira. Aurten 3 familiari eman zaie baja, adina dela eta, eta urtean zehar 5 familia sartu dira.



### AVI PROGRAMA (Bizimodu Independentearen aldekoa)

Adimen urritasuna edukita, modu independentean bizitzea erabakitzen duten edo erabaki duten eta gauza batzuetan euren kabuz konpon ezin ditzaketen beharrak edo gabeziak dituztenen pertsoneri laguntza, orientazioa eta babesa eskaintzen datza programa. Aurten, zerbitzuak desgaitasun intelektuala duten 42 pertsona artatu ditu. Pertsona horiek bakarrik bizi dira, beren etxean, pentsioetan edo gizarte-zerbitzuen saretik kanpoko egoitzetan, eta ez dute inolako laguntza instituzional edo familiarrik jasotzen etxebizitzan. 2021ean zehar, pandemia dela eta, duela urte batzuk egiten ari ziren jarduera batzuk ezin izan dira garatu, hala nola AVIko pertsona guztien urteko topaketa edo Andre Maria Zuriaren jaietako elkartzea. Beste jarduera batzuk, udako oporrak eta asteburuetakoa bidaiak, besteak beste, osasun-gomendioetara egokitu dira.

# etxebizitza zerbitzuak

## Zerbitzuaren egitura



### Talde etxeak

Batzarrak	Foronda
Mariturri	Urbasa
Oion	Easo
Laudio	Amurrio
Zapardiel	Las Losas
Saracibar	

### Programak

AVI

Atsedeen programa

### Talde etxeak



Pertsonak: **93**  
Profesionalak: **92**

### Egonaldi laburrak



Pertsonak: **13**  
(15 egonaldi labor)  
Profesionalak: taldeen etxeetako profesional berberak babesten eta zaintzen dituzte

### AVI programa



Pertsonak: **42**  
Profesionalak: **8**

### Atsedeen programa



Pertsonak: **20**  
Profesionalak: **5**

- Pertsonen behar espezifikoak erantzuteko etxeetan beharrezkotzat jo diren Esku Hartzeko Plan Bateratuak egin dira.
- Bizi-kalitatearen urteko neurketa berria.
- Banakako laguntza-planak eguneratzea.
- Banakako denbora ezartzea etxeetan arreta emateko metodologia gisa.

### ZAHARTZEARI BURUZKO EKINTZA-PLAN INTEGRALARI DAGOKIONEZ:

- 45 urtetik gorako pertsonen narriadura kognitiboaren maila neurtzea (helburuaren %90 lortu da).

### COVID-19AREN PANDEMIARI DAGOKIONEZ:

- EKontingentzia-plana egitea eta abian jartzea.
- COVID-19aren protokoloa egitea, abian jartzea eta jarraipena egitea.

## 2022an egitekoak:

### PERTSONARI ZUZENDUTAKO ZERBITZU BATI DAGOKIONEZ:

- Bizi-kalitatearen neurketa berria.
- Banakako laguntza-planak eguneratzea.
- Profil pertsonalak eguneratzea.
- Zerbitzuak artatutako pertsona bakoitzaren bizi-baldintza espezifikoengatik beharrezkoak diren esku-hartze bateratuko planak eguneratzea.
- Etxebizitza bakoitzaren esku-hartze bateratuko planak hobetzea, etxeetan arreta emateko metodologia gisa banakako denbora bermatzeko.

### ZAHARTZEARI BURUZKO EKINTZA-PLAN INTEGRALARI DAGOKIONEZ:

- 45 urtetik gorako pertsonen narriadura kognitiboaren neurketa berria.
- Narriadura kognitibo diagnostikatu zaien pertsonen jarraipen espezifikoa.

### COVID-19AREN PANDEMIARI DAGOKIONEZ:

- Kontingentzia-plana eguneratzea eta horren jarraipena egitea.
- COVID-19 protokoloa eguneratzea eta horren jarraipena egitea.

### PROZEDUREI DAGOKIENEZ:

- Atsedeen programako agur-protokoloa eguneratzea.
- Gainerako prozedurak berrikustea eta hobetzea, behar izanez gero.

## Etxebizitza: Jarduera Plana 2021-2022

## 2021eko ekintza nabarmenak

### PERTSONA ARDATZ DUEN ZERBITZU BATI DAGOKIONEZ

- Taldeen etxeetan bizi diren edo AVI programaren bidez artatutako pertsonen %90en profil pertsonala eguneratu da.

# aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak



Aisia Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarriaren aldeko apustua egiten du. Hiriko kultur, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzen dugu. Aisia zentro eta programetan, denbora libre pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira.

2021 urtean zehar, ziurgabetasunak errealitatearen egunerokotasuna markatzen jarraitu du. Hala ere, "Bizi-Kalitatea" gure esku-hartzearen gakoa izaten jarraitu du.

APDEMAren Aisialdi eta Gizarte Parte Hartze Zerbitzuaren misioa da adimen urritasuna duten pertsonentzako aisialdi-ekimenak sortzea, hurbilen duten kultura-, gizarte-, kirol- eta jolas-eskaintzaz goatzeko aukera emango dieten aukera eta ingurune abegitsu eta inklusiboak sortuz.

Zerbitzuak aisialdiko esperientziak eskaintzen ditu denontzat, Arabako herri eta auzoetan, kultura, jolas eta kirol-guneetan.

Aisia zentroetan, animazio soziokulturaleko tailerrak eskaintzen dituzte, astegunetan batik bat, eta kanpoan, parte hartu eta gizarte ingurunean eskaintzen dituen aukerez gozatzen da. Aukerak aisiarako zentro eta programen artean banatzen dira: Gasteiz, Amurrio, Audio eta Arabar Errioxa, eta ondorengo programa hauek: Kirola, udako oporrak eta bidaiak, aisia komunitatean, zahartzea, irakurketa errazeko klubak, boluntarioria eta autokudeatzaileak.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatzen da zerbitzua.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira kostara, edo bisita kulturalak hiri eta herrietara. Aisian kirola egitera ere animatzen dugu.

# aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

## Aisia zentroak eta programak

Eskaintza, topaketarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak zein talde artekoak sustatzeko lekuak, honela banatuta daude: animazio soziokulturaleko tailerrak astelehenetik ostiralera, eta asteburuetako jarduerak, jardueren agenda espezifikoeekin.

2021ean, Covid 19ak sortutako osasun larrialdi egoera mantendu arren, Gasteizko Aisialdi Zentroak bere jarduera berrartu zuen eta profesional eta boluntarioei esker, pandemiaren aurreko urteetako antzeko jarduera izatera hurbildu zen. Zentroaren ordutegia osasun neurrietara egokitu zen eta astelehenetik igandera 17:30etatik 20:30etara irekita egon zen. Asteazken zehar egindako jarduerak Marrazketa Tailerrak (2 maila), Erlaxazioa, Gorputzaren Adierazpena, Pilates, Luzaketak eta Sukaldaritza (2 maila) izan dira.

Bestetik, asteburuko jardueren eskaintzak bi programa barne hartzen zituen, Erkidegoko Jardueren Programa eta Zentroko Jardueren Programa. Urtearen amaieran, 183 bazkidek, 12 boluntariok eta jardueretako 7 teknikaririk parte hartu dute.

Laudioko eta Amurrioko Gazte Alaiak zentroek ere pandemiaren eragina jasan dute, nahiz eta ohiko funtzionamendua mantentzen saiatu diren.

Amurrioren, 19 bazkidek, 17 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek parte hartu dute. Laudion, berriz, 24 bazkidek, 5 boluntariok, lantegietako teknikariak eta aisialdiko espezialista batek hartu dute parte.

Azkenik, Arabako Errioxako Programak ere indarberrituta ekin zion bere lanari. Aurten, 27 bazkidek parte hartu dute jarduera ezberdinetan, 6 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek lagunduta.



## Oporraldi programa

Udako hilabeteetan pandemiak izan zuen bilakaera ona dela eta, Oporretako Programa osasun-larrialdiaren aurreko maila arruntetara iritsi zen, Bidaia Programa ez bezala. Hala, Aisialdi eta Gizarte Partaidetza Zerbitzuak udako aisialdirako alternatiba erakargarriak diseinatu zituen, hauek, Apdemako erabiltzaileen artean arrakasta izan zutelarik.

Oporren eskaintza berria hurrengo modalitateetan banatu zen: udako jarduerak, egonaldiak, ihesaldiak eta Kirol Anitzak. Uztailaren guztira 44 pertsonak hartu zuten parte 7 eta 11 lagun bitarteko taldeetan banatuta, 12 begiralaren laguntzarekin. Abuztuan, berriz, 48 pertsonak hartu zuten parte 15 begiralaren laguntzarekin.

8 opor-eguneko Egonaldi Programan 23 pertsonak parte hartu zuten, 2 koordinatzaile eta 6 begiralek lagunduta. Era berean, 4 eguneko "Ihesaldiak" programan 52 lagunek parte hartu zuten, 6 koordinatzaile eta 12 begiralek lagunduta.

Azkenik, Kirol Anitzetan, 18 pertsona erabiltzailek parte hartu zuten 5 begiralaren laguntzarekin.

## Bidaia programa

Aurten, pandemia dela eta, Pazko Asteko bidaiarik ez da eskaini, ezta IMSERSO Programarik ere. Pazko Asteko bidaien orde, "Goizeko ibilaldiak" eta Arratsaldeko Ekintzak eskaini dira eta, bertan, 41 bazkidek eta 14 begiralek parte hartu dute.

## Kirol programa

APDEMA Kirol Elkartek asteroko kirol-jardueren eskaintza bat proposatzen du denboraldi bakoitzean, eta horrela, errentagarritasun sozial handia lortzen da.

Pandemia dela eta jarduera asko bertan behera geratu diren arren, 2021ean Gasteizko 74 kirolarik 6 kirol-modalitateetan parte hartu dute 15 kirol-taldetan banatuta, 15 entrenatzailearen laguntzarekin. Laudion, berriz, 14 kirolarik parte hartu dute 2 kirol-diziplinatan, 3 entrenatzailearen laguntzarekin.

Kirol txapelketetan 4 igerilarik parte hartu dute Espainiako Igeriketa Txapelketan - FEDDI. FUTSAL taldeak, berriz, Liga Erregionaleko 9 jardunaldietan eta Kopa Txapelketan parte hartu zuten.

Horrez gain, Gasteizko Judizmendi Igeriketa Klubarekin lankidetzan mantendu da, eta hori kirol-denboraldian zehar zehaztu da; izan ere, APDEMAko 15 igerilarik Arabako Igeriketa Federazioaren egutegiko proben Arabako txapelketetan eta azaroen lehen kontrol autonomikoan parte hartu dute.

## Boluntarioak

APDEMAko aisia teknikarien laguntzarekin, hainbat boluntario taldek dinamizatzen dituzte aisia zentro eta programetako jarduerak, asteburuetan.

Arreta pertsonalizatu eta kalitatezkoaren aldeko apustuak etengabeko prestakuntza eskatzen du, abian dagoen aisialdiko eskaintzak eta garatu beharreko zereginak urtez urte eraginkortasuna eta erabilgarritasuna izaten jarrai dezaten.

Prestakuntza-jarduera eta -programa asko bertan behera geratu arren, 2021an APDEMAko 40 boluntarioko taldea Gasteizko 12 boluntarioen, Aiaraldeko 22en eta Arabako Errioxako 6en artean banatu da.

## Irakurketa errazeko klubak

2014-2015 ikasturtean, duela 5 urte, Irakurketa Erraza jarduera ezarri zen APDEMAN, eta jarduera hori "etengabeko elkartze-jarduera" bihurtu da gure elkartean. Ikasturtez ikasturte, adimen urritasuna duten pertsonen irakurzaletasuna handituz joan da.

2021an 3 klubak mantendu ziren, eta urteko hiru hiruhilekoetan funtzionatu zuten. Guztira 81 lagunek parte hartu zuten Ignacio Aldecoa liburutegiko klubetan eta Iparralde eta Gasteizko Pilar Klubetan.

Amurrioren ere irakurketa errazeko 3 klub gauzatu ziren 2021 urtean zehar eta 14 pertsonen parte hartu zuten. Aipatzekoa da, halaber, Gasteizko Udalaren IE Klub inklusiboa, Gasteizko El Pilar Zentroan egiten dena. Bertan, adimen urritasuna duten hiru pertsonak hartu dute parte. Kontuan izan behar da, halaber, IE Klub inklusiboaren arrakastaren ostean, Gasteizko Udalak bere kultur eskaintzen barruan sartu duela Kluba eta, Konsistorioak, gure dinamizatzaileetako bat kontratatu du zerbitzu berri honetarako. Aipatutako Klubean 2 autokudeatzailek eta Apdemako hainbat kidek parte hartu dute.

## Autokudeatzaileen programa

Covid-19aren pandemiak egindako jarduerak aldatu ditu, baina ez du talde autokudeatzaileen funtzionamendua deuseztatu, ezta kideek jasotako banakako arreta ere. Gaur egun, 68 pertsonen osatzen dute Autokudeatzaileen taldea.

2021an, 5 taldek eutsi diote jarduerari: 4k Gasteizen eta batek Amurrioren; batez beste, %94,1ko asistentzia izan dute. Bilerak urtariletik abendura normaltasunez egin ziren Aisialdiko Zentroetan segurtasun neurri guztiekin.

Hauek izan dira beste jarduerak aipagarri batzuk: Irakurketa Errazeko Klubak, Irakurketa errazeko jardueren koordinazioa eta formazioa, Irigarritasun Kognitiboan formakuntza, Oporrak "gure kasa", Ospitalariak Done Jakue aterpetxe sarean, Gurutze Gorriko boluntarioak Ecos de Usuarios aldzakaria, APDEMAko Enplegu Batzordean parte hartzea, "Eraiki dezagun mundua" proiektua, "Gure ahotsa" komisioa, "Gera gaitetzen" programa, Elikagaien Bankuko boluntarioak, Amurrioko III. Krosa edo "Aniztasuna gara" Udala Programa abian jartzea.

# aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

## Aisia zentroak eta programak



### Gazteiz

Erabiltzaileak: **183**

Profesionalak: **7**

Boluntarioak: **12**

### Amurrio

Erabiltzaileak: **19**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **17**

### Laudio

Erabiltzaileak: **24**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **5**

### Arabar errioxa

Erabiltzaileak: **27**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **6**



### Oporrak

Parte-hartzaileak: **185**

Begiraleak: **56**

Txandak edota jarduerak: **22**



### Kirola Gasteiz

Kirolariak: **74**

Jarduera taldeak: **15**

Kirol modalitateak: **6**



### Boluntarioak

Gasteiz **12**

Laudio **5**

Amurrio **17**

Arabako Errioxa **6**



### IE klubak

Gasteiz Taldeak: **3**

Amurrio Taldeak: **3**



### Bidaiak

Parte-hartzaileak: **41**

Begiraleak: **14**

Bidaiak: **0**

### Kirola Laudio

Kirolariak: **14**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **3**

Jarduera taldeak: **2**

Kirol modalitateak: **2**

### Autokudeatzaileak

Gasteiz Taldeak: **4** Parte-hartzaileak: **58** Bilerak: **76**

Amurrio Taldeak: **1** Parte-hartzaileak: **10** Bilerak: **20**

Goizeko ibilaldiak /  
arratsaldeko ekintzak: **7**

### Kirola Txapelketak Erkidegoko-Estatuko

Txapelketak: **10**

Kirolariak: **20**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **3**

Kirol modalitateak: **2**

# Arreta goiztiarreko zerbitzua



Garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilek eta euren familiek dute lekua Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan. Euren gaitasunak ahalik eta gehien bultzatzea, haurraren eta horren familiaren gizarte inklusioa sustatzea, haurraren eta horren familiari ingurura egokitzen laguntzea eta modu prebentiboan jokatzeko dira gure zerbitzuaren helburu nagusiak. Horretarako, banakako edo taldekako saioak egiten dira, 45 minutukoak, familiak parte hartuta, eta laguntza eskaintzen zaio behar duen guztietan.

COVID 19 pandemiak egoera berezia sortu arren, 2020ko irailetik aurrera, Arreta Goiztiarreko Zentroan aurrez aurreko arreta mantendu da, osasun-segurtasun arau guztiak mantenduz.

## Arreta zuzena

Guztira 576 haur artatu dira (399 haur Arreta Goiztiarreko Zentroan). 192 neska eta 384 mutil.

### • Estimulazio orokorra Arreta Goiztiarrean

2021ean 363 haur artatu ziren estimulazio globalean, banaketa honekin:

- 219 haurrek estimulazioa bakarrik jaso zuten
- 24 haurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 83 haurrek logopedia/estimulazioa jaso zuten
- 37 haurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia jaso zuten

### • Fisioterapia Arreta Goiztiarrean

97 haur artatu ziren fisioterapian, banaketa honekin:

- 29 haurrek fisioterapia bakarrik jaso zuten
- 24 haurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten

Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilek artatzen ditugu.

Estimulazio, Fisioterapia eta Logopedia zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Haur horien familiak ere artatzen ditugu eta lagundu ere egiten diegu,

ongi torria ematen diegu Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, eta euren haurtxoei laguntzen erakusten diegu.

Gurasoek parte har dezakete saioetan.

# arreta goiztiarreko zerbitzua

- 7k fisioterapia/logopedia
- 37k fisioterapia/logopedia/estimulazioa

## • Logopedia Arreta Goiztiarrean

Arreta Goiztiarrera etortzen diren haurrek aurkezten duten beharren aniztasuna dela eta, hizkuntza-errehabilitazio zehatzagoa behar duten kasuak artatzeko, Arabako Foru Aldundiko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatutako ADARE eta TIPI zentroekin lankidetzeta-hitzarmena mantentzen da.

178 haur logopedia-saioretara soilik joan dira; 83k, berriz, logopedia-saioak eta arreta goiztiarreko saioak txandakatu dituzte zentroan; 7k fisioterapia eta logopedia jaso dute; eta 37k estimulazioa, logopedia eta fisioterapia. 305 haur artatu dira guztira.

Hiru arlo nagusi dira Arreta Goiztiarreko Logopedian esku-hartu behar direnak:

## • Haurrari eta bere familiari arreta

Esku-hartze mota Arreta Goiztiarreko Ebaluazio Taldeak (AGBT) zehazten du kasu bakoitzaren bilakaeraren jarraipena eginez.

Haurrek aurkezten dituzten beharren aniztasuna dela eta, esku-hartzea, modu konbinatuan edo independentean eman daitezkeen hiru arlo nagusietan sailkatzen da.

- Garapenaren Estimulu Orokorra
- Fisioterapia
- Logopedia

• **“Laguntza teknikoak”:** fisioterapiaren esku-hartzeak, saioez gain, igeltoarekin egokitzen egitea dakar (eserleku molekatuak, bipedestadoreak, standing-a, etab.); altzarien egokitzenak, kinesiotaping-bendak... Esku-hartze hauek funtsezkoak dira haurraren eguneroko bizitzan gorputz-jarreraren higiegi ona izateko eta eskolan nahiz etxean sartzeko. 2021ean 86 egokitzen egin dira.

## • Familiei arreta eta aholkularitza ematea

Familiak harreman zuzena dute seme-alabei arreta ematen dieten profesionalekin, eta esku-hartze prozesu osoan bultzatzen dute haien inplikazioa.






## Prestakuntza eta gizarte parte-hartzea

Zerbitzuko profesional batek KHaren (Komunikazio handigarria eta alternatiboa) erabileraren inguruko hitzaldia eman du.

## Ondorioak

Beste urte batez, arreta goiztiarrean artatutako behar bereziak dituzten haurren kopuruak gora egin du. Ezinbestekoa da haurra bere osotasunean ulertzearen garrantzia azpimarratzea (haurra-ingurunea-familia) eta hari lotuta dauden sistema guztien arteko koordinazioa dagokion tokian jartzea.

## Egundako egokitzapenen adibideak



Triziklo egokituak

Mini standing-a

Egokitutako aulkia

Bipestadorea

## Familia laguntza

Gurasoentzako laguntza sentimenduak adierazteko, ezagutzak eskuratzeko eta jarduteko jarraibideak ikasteko espazio bat eskaintzean datza. Bi motatako laguntza eskaini da: Harrera eta Banakako Laguntza. Hala, 2021ean zehar, 137 familia hartu dira zentroan, eta banakako laguntzako 125 esku-hartze egin dira.

## Koordinazioa

Funtsezkoa da bertara joaten diren haurren esku-hartzean inplikaturako zerbitzu guztien arteko koordinazioa, hazteko aukerak optimizatzeko. Taldearen asteko barne-koordinazioa.  
Kanpo-koordinazioa: haurrak joaten diren zerbitzu guztietan.

### Arreta goiztiarra

Haurrak: **576**

Profesionalak: **22**

Familiak: **576**

### Esku-hartzeak

Estimulazio orokorra: **363** haur

Fisioterapia: **97** haur

Logopedia: **305** haur



## Laguntzaileak:

### ERAKUNDEAK:



### ENTITATEAK:



### ENPRESAK:

